

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Enviser Servicios Medioambientales, SAri dagokion greba-amaierako akordioa

Ebazpena, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Enviser Servicios Medioambientales, SAri dagokion greba-amaierako akordioa inskribatzea eta argiataratzea. Hitzarmenaren kodea 01100121052025.

AURREKARIAK

Aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, sinatu zutena.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintzari honi dagokio, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 18.2.g artikulua arabera.

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen, Akordio Kolektibo eta Berdintasun-Planen Erregistro Arabako atalean inskribatu eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 13a

Arabako lurralde ordezkaria
IBON LOPEZ ALDAZ

Batetik, Enviser Servicios Medioambientales, SA enpresaren ordezkariak eta, bestetik, «Vitoria-Gasteizko berdeguneak eta hiriko zuhaitzak kontserbatzeko Zerbitzua, 1. sorta» eta «Vitoria-Gasteizko eraztun berdea Kontserbatzeko Zerbitzua» ordezkatzeko duen greba-batzordea.

Aipatutako alderdiak Arabako Lan Harremanen Kontseiluaren lurralde-egoitzan bildu dira, 2025eko urriaren 8ko 13:00etan, eta, elkarri legitimazioa eta gaitasuna aitortuta, honako hau sinatu dute:

Greba amaitzeko akordioa

Lehenengoa. Akordio honek zerbitzu hauetako langileei eragingo die: «Vitoria-Gasteizko berdeguneak eta hiri zuhaitzak kontserbatzeko Zerbitzua, 1. saila» eta «Vitoria-Gasteizko Eraztun Berdea Kontserbatzeko Zerbitzua»; beraz, gaur egun enpresan alta emanda dauden langileei nahiz etorkizunean bi zerbitzuetako edozeinetan sartzen direnei aplikatuko zaie. 17/1977 Errege Dekretuaren 8.2 artikulua arabera, akordio honek amaiera emango dio 2025eko martxoaren 26an hasitako greba mugagabeari, eta hitzarmen kolektiboan adostutakoaren eraginkortasun bera izango du.

Bigarren. Akordio hau indarrean jarriko da sinatu eta biharamunean, 2025eko urriaren 9an, eta 2028ko abenduaren 31 arte izango du indarra.

Berariaz hitzartzen da akordio honek indarrean jarraituko duela hitzartutako iraupena amaitu ostean, harik eta bi alderdiek hori ordeztuko duen beste bat sinatzen duten arte.

Hirugarrena. 2025, 2026, 2027 eta 2028rako soldata I. eranskineko soldata-tauletan ezarritakoa izango da, baina 2028rako soldata-taula atzera eraginik gabe aplikatuko da, ondore osoz, akordio honen lehenengo apartatuan deskribatutako zerbitzu bakoitzaren kontrata berria benetan indarrean jartzen denetik aurrera. Nolanahi ere, akordio honen xede den zerbitzu bakoitzaren administrazio-kontratu berrian kostuak eta igoerak sartzen direnean aplikatuko dira benetan.

Laugarrena. Hileroko plus bat sortuko da emandako zerbitzuengatik, bi, sei, hamar, hamalau, hemezortzi, hogeita bi, hogeita lau, hogeita sei eta hogeita zortzi urteetatik aurrera. Zenbatekoak II. eranskinean jasotako taulan zehaztuta daude, akordio hau indarrean denerako.

Bosgarrena. Urteko benetakoa lanaldia honako hau izango da:

2025ean: 1.700 ordu.

2026an: 1.648 ordu.

2027an: 1.616 ordu.

2028an: 1.592 ordu.

Lanaldia astelehenetik ostiralera banatuko da, 07:30etik 15:30era, eta udako hilabeteetan 7:00etatik 15:00etara.

Akordio hau indarrean jartzen denetik, langileek 20 minutuko atsedenaldia izango dute lanaldi osoan, eta atsedenaldi hori benetan lan egindako denboratzat hartuko da. 2027ko urtarilaren 1etik, 30 minutukoa izango da.

Enpresak lan-egutegia prestatuko du, langileen legezko ordezkariarekin adostuta, eta lantokian ikusgai jarri beharko du, ondo ikusten den leku batean.

Seigarrena. Langileek urtean 8 ordu izango dituzte ezkontideari, izatezko bikotekideari, seme-alabei edo gurasoei osasun-sistema publikoko mediku espezialistarenera laguntzeko, baldin eta aldez aurretik justifikatzen badute ez daukatela lanalditik kanpo joateko aukerarik. Baimen hori ezin izango dute baliatu langile bat baino gehiagok, baimena sortzen duen ahaidea pertsona berbera bada.

Zazpigarrena. Laneko istripuen, gaixotasun profesionalen edo ospitaleratzeen ondoriozko aldi baterako ezintasunetan, enpresak osagarri bat ordainduko du, kontzeptu ekonomiko guztien ehuneko 100a bermatzeko, aldi baterako ezintasuna hasten denetik eta ezintasun horrek irauten duen bitartean.

Gaixotasun arruntak edo lanekoa ez den istripuak eragindako aldi baterako ezintasunetan, enpresak osagarri bat ordainduko du, lehen aipatutako soldata-kontzeptu guztien ehuneko 75 bermatzeko, lehen zortzi egunetan, eta zortzigarren eguna gaindituz gero, ehuneko 100 ordainduko da, lehen egunetik aurrerako atzera-eraginez.

Aipatutako kontzeptu ekonomikoetan ez da sartzen garraio-plusa.

Aldi baterako ezintasun-egoerek ez dute gutxituko aparteko ordainsarrietan edo ordainsari berezietan jaso beharreko kopurua.

Zortzigarrena. Akordio hau indarrean dagoen bitartean, txanda-kontratu bidez erretiro partziala emango zaie lanaldi osoko langileei, baldin eta legeak eta hitzarmenek Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko erretiro-pentsioa jasotzeko eskatzen dituzten baldintza orokorrak betetzen badituzte.

Egiaztapen hori egiteko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako lan-bizitzaren jatorrizko ziurtagiria eta erretiro partzial aurreratua hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren txostena aurkeztu beharko dira enpresan. Agiri horiek erretiro partziala hartzeko enpresari zuzendutako idazkiarekin batera aurkeztuko dira, eta erretiroa hartzeko aurreikusitako data baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

Gainera, beharrezkoa izango da, erretiro partzialeko egoera hasten den unean, interesduna ez egotea lan-kontratua eteteko indarreko legerian aurreikusitako ezein kausatan.

Enpresak, azaldutako legezko eta hitzarmenezko baldintzak betetzen direnean, erretiro partziala izapidetu beharko du eskatutako lanaldi-murrizketa ehuneko 75ekoa denean.

Enpresaren obligazioa bi zerbitzuetako egungo plantillako bost langilek erretiroa hartzera mugatzen da, eta akordio hau sinatzen den unean dauden erretiro partzialak zenbatuko dira, ondorio guztietarako.

Enpresak, langilearekin ados jarrita, erretiro partziala hartzen duen langilearen lanaldiaren metaketa eta ordutegia ezarriko du. Metaketa hori lanaldi osoan egin ahal izango da, asteko egun jakin batzuetan, asteka eta hilabeteka, urte horretan, erretiro osoa hartu arte.

Bederatzigarrena. Urtean 2 ordu izango dira batzarrak egiteko. Enpresari idatziz jakinaraziko zaio, gutxienez 48 ordu lehenago, eta bilera noiz, non eta zer gai-zerrenda aztertzeko egingo den adieraziko zaio, bai eta enpresako kide izan ez arren batzarrera joango diren pertsonen izenak ere.

Enpresa-batzordea izango da batzarra behar bezala egitearen arduradun, bai eta batzordean enpresakoak ez diren pertsonak izatearen erantzule ere. Gai-zerrendan aurrez sartutako gaiak baino ezin izango dira eztabaidatu.

Hamargarrena. Ofizioetako langileen sarrerako gutxieneko kategoria lorezain laguntzailearena izango da.

Hamaikagarrena. Akordio hau ez bada aplikatu nahi aldi baterako (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketa-ekoizpenekoak direla-eta), horren berri eman beharko dio langileen legezko ordezkariari, Langileen Estatutuaren 82.3. artikuluan zehaztutako kontsulta-aldia hasi baino 30 egun lehenago, gutxienez. Kontsulta-aldian langileen ordezkariarekin akordiorik lortzen ez bada eta gatazkak konpontzeko lanbide arteko akordio aplikagarrien prozeduretara jota ere desadostasuna konpontzen ez bada (bi alderdiek beren-beregi hala egitea adosten badute soilik joko da arbitrajera), bi alderdien arteko akordioa beharko da (enpresaren ordezkariaren eta langileen ordezkariaren gehiengoaren arteko akordioa, alegia), hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ORPRICCEren edo, hala badagokio, Hitzarmen Kolektiboen Aholkularitza Batzorde Nazionalaren esku jartzeko.

Hamabigarrena. Greba amaierako akordio honetan jasotako lansari eta lan baldintzak osorik eta urteko zenbaketan baloratu beharko dira, eta konpentsatu eta absorbatu egingo da lorezaintzako estatuko hitzarmenean, aplikazio orokorreko legezko xedapenetan, edozein motatako auzibidean edo antzeko egoeratan jasotako lan-baldintzen edozein igoera eta hobekuntza, baldin eta banakako edo taldeko lansarietan eragina badu. Hortaz, akordio honek bere horretan jarraituko du, itundutako moduan eta baldintza berberetan.

Langileren batentzat aintzat hartutako ordainsari-baldintzak (betiere osorik eta urteko zenbaketan hartuta) akordio honetan kalifikazio bereko langileentzat ezartzen direnak baino hobekien badira, maila pertsonalean soil-soilik errespetatuko dira baldintza horiek, eta eraginpean hartutako langileentzat bakarrik.

Lan toxiko, nekagarri edo arriskutsuen plusa Lorezaintzako Estatuko Hitzarmenaren 32. artikuluen arabera ordainduko da, konpentsaziorik eta absortziorik gabe.

Hamahirugarrena. Akordio honetan parte hartzen duten alderdiek onartzen dute Estatuko lorezaintzako hitzarmen kolektiboa aplikatuko dela akordio honetan arautzen ez den guztian.

Hamalagarrena. Langileen ordezkariak konpromisoa hartzen dute grebaren deialdia bertan behera utzi dela jakinarazteko behar diren izapideak egiteko lan-agintaritza eskudunaren aurrean, bai eta enpresa honen aurka grebaren inguruan etorkizunean egin daitezkeen ekintzen, salaketen eta legezko prozeduren berri emateko ere.

Hamabosgarrena. Enpresak akordio honen berri eman behar dio Vitoria-Gasteizko Udalari, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hamaseigarrena. Behin bakarrik jaso beharreko sari bakarra ordaintzea hitzartu da, baldin eta Vitoria-Gasteizko berdeguneak eta hiriko zuhaitzak kontserbatzeko Zerbitzuaren kontrata berriaren 1. sorta 2028ko urtarrilaren 31 ostean jartzen bada benetan indarrean.

Sari bakar hori behin bakarrik ordainduko da, kontrata berria benetan hasi eta hurrengo hilean. Kontrata berriak atzeraeraginik gabeko aplikazio-ondorio osoak izango ditu, baldin eta kontrata berria benetan hasi bada, eta kontrata horren benetako aplikazioa lotuta egongo bada haren kostuak eta igoerak administrazio-kontratu berrian sartzearekin, III. eranskineko tauletan finkatutako kopuruen arabera, eta kontrata berria benetan hasi den hilabetearen aurreko hilabeterako finkatutako zenbatekoari egokituko zaio. Taula honetako zenbatekoak lanaldi osokoak dira, eta, kotizazioari dagokionez, zati berdinetan hainbanatuko dira jaso eta hurrengo hamabi hilabeteetan.

Hamazazpigarrena. Sari bakar ez-finkagarri bat ordainduko da 2028ko uztaileko nominan, behin bakarrik, 1.000,00 euro gordinekoa, Vitoria-Gasteizko eratzun berdea kontserbatzeko zerbitzuan. Taula honetako zenbatekoa lanaldi osokoak da, eta, kotizazioari dagokionez, zati berdinetan hainbanatuko da jaso eta hurrengo hamabi hilabeteetan.

Gainera, Vitoria-Gasteizko eratzun berdea kontserbatzeko zerbitzuaren kontrata berria 2028ko uztailaren 31tik aurrera hasten bada, bigarren sari bakar eta ez-finkagarri bat ordainduko da, behin bakarrik. Sari bakar hori behin bakarrik ordainduko da, kontrata berria benetan hasi eta hurrengo hilean. Kontrata berriak aplikazio-ondorio osoak izango ditu, baldin eta kontrata berria benetan hasi bada, eta kontrata horren benetako aplikazioa lotuta egongo bada haren kostuak eta igoerak administrazio-kontratu berrian sartzearekin, IV. eranskineko tauletan finkatutako kopuruen arabera, eta kontrata berria benetan hasi den hilabetearen aurreko hilabeterako finkatutako zenbatekoari egokituko zaio. Taula honetako zenbatekoak lanaldi osokoak dira, eta, kotizazioari dagokionez, zati berdinetan hainbanatuko dira jaso eta hurrengo hamabi hilabeteetan.

Hemezortzigarrena. Gatazka kolektiboa konpontzeko akordio hau erregistratu eta argitaratu dadin eskatuko da, Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko akordioan (PRECO) xedatutakoaren arabera.

Eta ados daudela erakustearren, alderdi guztiek sinatu dute, bi aletan, goian aipaturiko leku eta egunean.

I. eranskina

Soldaten taulak

SOLDATEN TAULA 2025EKO URRIAREN 9TIK 2026KO ABENDUAREN 31RA						
	OINARRIZKO SOLDATA	GARRAIOA	KONTS./MANT.	APARTEKO ORDAINSARIAK	LOTURA ORDAINS.	GORDINA URTEAN
Teknikari diplomatua	1.947,25	115,69	34,74	1.747,25	450,00	30.748,22
Titulurik gabeko teknikaria	1.696,13	115,69	34,74	1.496,13	450,00	26.981,42
Administrari burua	1.687,35	115,69	34,74	1.487,35	450,00	26.849,72
Ofizial administraria	1.598,90	115,69	34,74	1.398,90	450,00	25.522,97
Administrari laguntzailea	1.444,93	115,69	34,74	1.244,93	450,00	23.213,42
Arduraduna	1.563,97	115,69	34,74	1.363,97	450,00	24.999,02
Ofizial gidaria	1.504,98	115,69	34,74	1.304,98	450,00	24.114,17
Ofizial lorezaina	1.504,98	115,69	34,74	1.304,98	450,00	24.114,17
Lorezaina	1.440,55	115,69	34,74	1.240,55	450,00	23.147,72
Lorezain laguntzailea	1.390,32	115,69	34,74	1.190,32	450,00	22.394,27

2027 URTEKO SOLDATEN TAULA						
	OINARRIZKO SOLDATA	GARRAIOA	KONTS./MANT.	APARTEKO ORDAINSARIAK	LOTURA ORDAINS.	GORDINA URTEAN
Teknikari diplomatua	1.997,25	115,69	34,74	1.747,25	450,00	31.348,22
Titulurik gabeko teknikaria	1.746,13	115,69	34,74	1.496,13	450,00	27.581,42
Administrari burua	1.737,35	115,69	34,74	1.487,35	450,00	27.449,72
Ofizial administraria	1.648,90	115,69	34,74	1.398,90	450,00	26.122,97
Administrari laguntzailea	1.494,93	115,69	34,74	1.244,93	450,00	23.813,42
Arduraduna	1.613,97	115,69	34,74	1.363,97	450,00	25.599,02
Ofizial gidaria	1.554,98	115,69	34,74	1.304,98	450,00	24.714,17
Ofizial lorezaina	1.554,98	115,69	34,74	1.304,98	450,00	24.714,17
Lorezaina	1.490,55	115,69	34,74	1.240,55	450,00	23.747,72
Lorezain laguntzailea	1.440,32	115,69	34,74	1.190,32	450,00	22.994,27

2028KO ESLEIPEN BERRIAREN HASIERA ERAGINKORREKO SOLDATA-TAULA						
	OINARRIZKO SOLDATA	GARRAIOA	KONTS./MANT.	APARTEKO ORDAINSARIAK	LOTURA ORDAINS.	GORDINA URTEAN
Teknikari diplomatua	2.130,58	115,69	34,74	1.880,58	450,00	33.348,22
Titulurik gabeko teknikaria	1.879,46	115,69	34,74	1.629,46	450,00	29.581,42
Administrari burua	1.870,68	115,69	34,74	1.620,68	450,00	29.449,72
Ofizial administraria	1.782,23	115,69	34,74	1.532,23	450,00	28.122,97
Administrari laguntzailea	1.628,26	115,69	34,74	1.378,26	450,00	25.813,42
Arduraduna	1.747,30	115,69	34,74	1.497,30	450,00	27.599,02
Ofizial gidaria	1.688,31	115,69	34,74	1.438,31	450,00	26.714,17
Ofizial lorezaina	1.688,31	115,69	34,74	1.438,31	450,00	26.714,17
Lorezaina	1.623,88	115,69	34,74	1.373,88	450,00	25.747,72
Lorezain laguntzailea	1.573,65	115,69	34,74	1.323,65	450,00	24.994,27

II. eranskina

Antzintasuna 2025-2028

ANTZINATASUNA 2025, 2026, 2027 ETA 2028					
TEKNIKARIEN ANTZINATASUNA		ADMINISTRARIEN ANTZINATASUNA		OFIZIOEN ANTZINATASUNA	
URTEAK	ZENBATEKOA	URTEAK	ZENBATEKOA	URTEAK	ZENBATEKOA
2	34,95	2	27,41	2	25,32
6	96,14	6	75,79	6	70,18
10	168,24	10	132,56	10	122,83
14	240,33	14	189,36	14	175,53
18	302,73	18	238,04	18	219,94
20	364,30	20	294,09	20	264,41
22	384,49	22	302,98	22	280,79
24	442,03	24	370,24	24	343,31
26	532,80	26	416,19	26	385,86
28	576,83	28	454,50	28	421,15

III. eranskina

2028ko sari bakarra

	2028K SARI BAKARRA - VITORIA-GASTEIZKO BERDEGUNEAK ETA HIRIKO ZUHAITZAK KONTSERBATZEKO ZERBITZUA. 1. SORTA											
	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
Zenbateko gordina	144,44	288,89	433,33	577,78	722,22	1.000,00	1.144,44	1.288,89	1.433,33	1.577,78	1.722,22	2.000,00

IV. eranskina

2028ko sari bakarra

	2028KO SARI BAKARRA - VITORIA-GASTEIZKO ERAZTUN BERDEA KONTSERBATZEKO ZERBITZUA					
	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
Zenbateko gordina	144,44	288,89	433,33	577,78	722,22	1.000,00